# GORABIDE

Nº 253 Zk.
OCTUBRE DE 2016
2016KO URRIA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA


**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Calidad de vida familiar**
**Familien bizi kalitatea**
pg. 4 or.



**Oferta de ocio y tiempo libre**
**Aisia eta astialdirako eskaintza**
pg. 5 or.



**Talleres de hermanos y hermanas**
**Neba-arrebentzako tailerrak**
pg. 7 or.



# DÍA GORABIDE 2016

## Con toda la discapacidad intelectual, en toda Bizkaia

# GORABIDE EGUNA 2016

## Adimen desgaitasun guztiarekin, Bizkaia osoan


Estudio Familiares de Personas con Discapacidad

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

## Encuesta sobre resiliencia de las familias de personas con discapacidad intelectual (pg. 6)

## Adimen desgaitasuna duten pertsonen familien erresilientziari buruzko inkesta (6. or.)


GORABIDE

**ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL**
c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
www.gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide



Colabora
Laguntzen du
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Gure plangintza metodologia berria aurkeztu dugu, pertsona ardatz duena

***Ekitaldi instituzionala izango dugu eta aterkiak irekita elkartuko gara gure zentroetan, 'Adimen desgaitasun guztiarekin, Bizkaia osoan' lemapean***







2016ko Gorabide Egunean, gure metodologia berria aurkeztu dugu, pertsona ardatz duen plangintzan oinarritua, erabiltzaileen ahotsa hartzen dugu aintzat, haien helburuak ezartzeko eta identifikatzeko zein laguntza behar duten haien bizitzari zentzua ematen dieten premia, nahi eta igurikimenak asetzeko. Gainera, eredu horrek laguntzarako profesionalen sentsibilizazioa eta inplikazioa du eta familien ikuspegia ere bai.

Lau urteko lanaren emaitza da eta 75 parte hartzaile baino gehiago aritu dira, adimen desgaitasuna duten pertsonak, profesionalak eta familiak. Berrikuntza irekian eta lankidetza prozesuan egin da eta oso profil heterogeneokoek hartu dute parte. Modu berria da adimen desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzak planteatzeko eta emaitzei buruzko ikuspegi aldaketa da, erabiltzaile bakoitzaren araberakoa. Metodologia horrekin, Gorabiden eskaintzen diren laguntzen kudeaketa bideratzeko lau balio nagusi hartzen dira abiapuntu: erabiltzailea ardatz izatea, profesionaltasuna, parte hartzea eta berrikuntza.

**Erakundeen presentzia**

Ekitaldian, gurekin izan genituen Angel Toña, Gizarte Politiketako sailburua; Isabel Sánchez, Gizarte Ekintzako foru diputatua, eta Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea. Horietaz gain, beste ordezkari batzuk ere egon ziren, Eusko Jaurlaritzakoak, Bizkaiko Foru Aldundikoak, Bilboko udalekoak eta desgaitasunaren arloko erakundeetakoak eta hirugarren sektore sozialekoak.

Pertsona ardatz duen plangintza Gorabiden aplikatzeari buruzko aurkezpenaz arduratu ziren Ricardo Aretxaga eguneko zentroetako koordinatzailea; Tania Pereda, psikologoa; Raquel Díez, Arreta Zuzeneko profesionala eta Reyes Barranco, Gorabideko egoitza bateko erabiltzaile bat.

> IRAKURKETA ERRAZA
>
> Gorabideren 54. urteurrenean, laguntza pentsatzeko modu bat aurkeztu dugu erabiltzaileak kontuan izanik. Gurekin izan genituen Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Aldundikoak, Bilboko udalekoak eta beste erakunde batzuetakoak. Aterkiak irekita elkartu ginen gure zentroetan.

**Aterkiak irekita Bizkaian**

Azkenik, aterkiak irekita elkartzeko tradizioa, adimen desgaitasuna duten pertsonen inklusio osoaren aldekoa, zentroak ditugun beste herri batzuetara ere eraman dugu aurten, 'Gorabide, adimen desgaitasun guztiarekin, Bizkaia osoan' lemapean. Jarduera horrekin, frogatu nahi dugu pertsona guztiak garela gizarte berberaren parte.







# Presentamos nuestra nueva metodología de planificación centrada en la persona

## *Además del acto institucional, organizamos paraguadas en nuestros centros, bajo el lema 'Con toda la discapacidad en toda Bizkaia'*

En el Día Gorabide 2016, presentamos nuestra nueva metodología basada en la planificación centrada en la persona, con la que incorporamos la voz de las personas usuarias a la hora de establecer sus objetivos e identificar los apoyos que necesitan para cubrir las necesidades, los deseos y las expectativas que dan sentido a su vida. Además, este modelo cuenta con la sensibilidad e implicación de profesionales de apoyo y con la perspectiva de las familias.

Este fruto del trabajo de cuatro años con más de 75 participantes, entre personas con discapacidad intelectual, profesionales y familias, en un proceso de innovación abierta y cocreación que ha permitido una amplia participación de perfiles muy heterogéneos, es una nueva manera de plantear los apoyos para las personas con discapacidad intelectual, y un cambio de mirada sobre los resultados esperados que se ajuste a la medida de cada persona usuaria.

Con esta metodología, se está orientando la gestión de apoyos que se ofrecen en Gorabide desde cuatro valores principales: orientación a la persona usuaria, profesionalidad, participación e innovación.

### Presencia institucional

En el acto, contamos con la participación de Ángel Toña, consejero vasco de Políticas Sociales; Isabel Sánchez, diputada foral de Acción Social; y Juan Mari Aburto, alcalde de Bilbao. Además, entre las personas asistentes había una amplia representación del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia, del Ayuntamiento de Bilbao y de las entidades de la discapacidad y del tercer sector social.

La exposición sobre la aplicación en Gorabide de la planificación centrada en la persona corrió a cargo de Ricardo Aretxaga, coordinador de centros de día; Tania Pereda, psicóloga; Raquel Díez, profesional de atención directa; y Reyes Barranco, usuaria de una de las residencias de Gorabide.

> LECTURA FÁCIL
>
> En el 54 cumpleaños de Gorabide, hemos presentado una forma de pensar los apoyos teniendo en cuenta a las personas usuarias. Participaron representantes del Gobierno Vasco, la Diputación, el Ayuntamiento de Bilbao y otras entidades. La paraguada la hicimos en nuestros centros.

### Paraguadas por Bizkaia

Finalmente, la ya tradicional paraguada que organizamos para abogar por la plena inclusión de las personas con discapacidad intelectual se trasladó este año a las localidades donde tenemos centros, bajo el lema 'Gorabide, con toda la discapacidad intelectual en toda Bizkaia'. Con esta actividad, pretendemos demostrar que todas las personas formamos parte de la misma sociedad.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Programa de Apoyo a la Calidad de Vida Familiar

Gorabide ofrece a sus familias la posibilidad de participar en un Programa de Apoyo a la Calidad de Vida Familiar. Este programa consiste en unos tres o cuatro encuentros anuales de la familia con la trabajadora social o el psicólogo que dinamiza el programa, con el objetivo de encontrar aspectos de mejora en la vida familiar y comprometerse a trabajar sobre ello. Se evalúa la situación familiar y sus necesidades, y se elabora un plan de apoyo que mejore tanto sus competencias familiares como su sentido de bienestar. Esta metodología permite participar a la familia en su conjunto durante todo el proceso, lo que abre nuevas posibilidades de acción y permite afrontar cuestiones que, de otra forma, se hacen muy complejas de manejar. Además, ayuda a la familia a sentirse acompañada y a activarse.

Los aspectos que más se busca mejorar son: interacción familiar, organización y habilidades parentales, e inclusión y participación social. Para las familias que ya han participado, el impacto del programa se ha traducido en *"alivio y tranquilidad"*, "escuchar y escucharnos", *"parar en las complicaciones de la vida y poder pensar"* o *"recuperar el control"*. También han valorado trabajar conjuntamente como familia y poder contar con alguien ajeno *"que sirviera de pantalla, que nos diera un reflejo, y también para reforzar lo positivo"*.

**Ocho plazas para participar en 2017**

Las familias interesadas en participar en este programa de apoyo a la calidad de vida familiar, pueden apuntarse llamando al servicio BBK SAIOA GORABIDE (teléfono 94 453 90 86) y dejando sus datos. La trabajadora social de referencia se pondrá en contacto con las familias inscritas para concretar la participación. La adjudicación de plaza se hará por orden de inscripción hasta cubrir las ocho plazas disponibles.

# Familiaren Bizi Kalitatea Babesteko programa

Gorabidek aukera ematen die elkarteko familiei Familiaren Bizi Kalitatea Babesteko Programan parte hartzeko. Programa horren bidez, urtean hiru edo lau aldiz elkartuko dira familia eta gizarte langilea edo programa dinamizatzen duen psikologoa, helburu dutelarik familiako bizi kalitatea hobetzea eta horretan lan egitea. Familiaren egoera eta premiak ebaluatzen dira, eta laguntza plana egiten da familiaren gaitasunak eta ongizatea hobetzeko. Metodologia horren bidez, familia osoak du aukera prozesuan parte hartzeko, horrek beste aukera batzuk ematen ditu ekintzarako eta bestela konpontzen zailak diren gaiak tratatzeko. Gainera, horrela familia babestuta sentitzen da eta aktibatu egiten da.

Hauek dira hobetu nahi diren arloak: familiako interakzioa, gurasoen antolaketa eta trebetasunak eta gizarteko inklusioa eta parte hartzea. Parte hartu duten familientzat, programa bihurtu da *"arnasbide eta lasaitasun"*, *"entzun eta elkar entzun"*, *"bizitzako arazoetan gelditu eta pentsatu"* edo *"kontrola berreskuratu"*. Estimatu egin dute familia modura elkarrekin lan egitea eta kanpoko bat haiekin egotea *"pantaila modura, gure isla izateko, eta alde positiboa indartzeko ere bai"*.

**Zortzi plaza 2017an parte hartzeko**

Familiaren bizi kalitatea babesteko programan parte hartu nahi duten familiek, izena emateko, telefonoz dei dezakete BBK SAIOA GORABIDE zerbitzura (94 453 90 86 telefonoa) eta datuak eman. Dagokien gizarte langilea jarriko da harremanetan izena eman duten familiekin, parte hartzea zehazteko. Plaza izena emateko ordenaren arabera emango da, libre dauden zortzi plazak bete arte.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**



# Oferta del Servicio de Tiempo Libre

El Servicio de Tiempo Libre ya ha arrancado motores con las salidas de fin de semana y con el Club Diario de Bilbao. Pero, durante este mes de octubre, también iniciarán sus actividades el resto de los Programas de Invierno. Como novedad respecto al inicio de curso de 2015, destaca la actividad de rugby, que completa el resto de la oferta:

**Clubes diarios:** en Bilbao, Barakaldo, Durango y Ermua, entre semana, por las tardes.

**Centros de recursos de ocio:** en Bilbao y Barakaldo, entre semana, por las mañanas.

**Clubes de fin de semana:** en Bilbao, Barakaldo, Busturia, Durango, Ermua y Galdakao, tardes de sábados y domingos.

**Salidas**: de día o de fin de semana a diferentes destinos.

**Informática, expresión corporal, bailes de salón, música y expresión artística:** en Bilbao, entre semana.

**Futbito:** viernes y domingo en Bilbao (Liga Vasca de Fútbol Sala Adaptado) y viernes en Zorroza (Fund. Athletic).

**Gimnasia:** en Bilbao y Barakaldo (consultar días y horarios).

**Rugby inclusivo:** dos días al mes (para mayores de 18 años).

**SERVICIO DE TIEMPO LIBRE: Tel. 94 443 12 10**.

# Astialdiko Zerbiztua: eskaintza orokorra

Aisialdiko Zerbitzuak motorrak martxan jarri ditu asteburuetako irteerekin eta Bilboko Astegunetako Klubarekin. Baian, urrian zehar, Neguko beste Programetako jarduerak egiten hasiko dira. 2015ko ikasturtearen hasieratik 2016eko ikasturtearen hasierarekiko aldakuntza aipagarriena errugbi jarduera da, horrekin osatzen da eskaintza:

**Astegunetako klubak:** Bilbon, Barakaldon, Durangon eta Ermuan, aste barruan, arratsaldez.

**Aisiarako baliabide-zentroak:** Bilbon eta Barakaldon, aste barruan, goizez.

**Asteburuko klubak:** Bilbon, Barakaldon, Busturian, Durangon, Ermuan eta Galdakaon larunbat eta igandeetan, arratsaldez.

**Irteerak:** egunekoak edo asteburuetakoak.

**Informatika, gorputz adierazpena, areto dantzak, musika eta adierazpen artistikoa:** Bilbon, aste barruan.

**Areto-futbola:** ostiral eta igandeetan Bilbon (Areto-Futbol Egokituaren Euskal Liga) eta ostiraletan Zorrozan (Athletic)

**Gimnasia:** Bilbon eta Barakaldon (egunak eta orduak kontsultatu).

**Errugbi inklusiboa:** hilean 2 egunetan (18 urtetik gorakoentzat).

**ASTIALDIAKO ZERBITZUA: Tel. 94 443 12 10**.

# Familia, resiliencia y discapacidad

***Colaboramos con la Universidad de Deusto en un proyecto para conocer qué ayuda a las familias a adaptarse a situaciones difíciles vinculadas a la discapacidad intelectual***

En psicología, se llama “resiliencia” al proceso de adaptación a situaciones difíciles e incluso transformarlo en algo positivo. Y estudiar la resiliencia en familiares que apoyan a personas con discapacidad intelectual es fundamental para crear programas que ayuden a ambas partes a sentirse bien y desarrollarse plenamente. Porque desarrollar esa resiliencia permite a las familias tener más herramientas y sentirse mejor en el día a día.

Por ello, Gorabide y la Facultad de Psicología y Educación de la Universidad de Deusto comenzamos a colaborar el año pasado en un proyecto que tiene como objetivo conocer qué ayuda a las familias a adaptarse a las situaciones difíciles relacionadas con la discapacidad intelectual, para poder desarrollar intervenciones que les ayuden. Con ese fin, 35 familiares de varias asociaciones se entrevistaron individualmente con una psicóloga de la Universidad de Deusto.

**Cuestionario anónimo**

Pero para comprender la situación de los diferentes tipos de familiares, pedimos vuestra participación, totalmente anónima y confidencial, en un cuestionario al que se accede a través de la dirección web bit.ly/2c9Ntqx o solicitarlo en nuestra sede de Bilbao o en la oficina del servicio BBK SAIOA GORABIDE, para devolverlo en un sobre que ya tiene sello. Sólo con vuestra colaboración es posible obtener datos importantísimos para mejorar la calidad de vida de las familias de personas con discapacidad intelectual.




# Familia, erresilientzia eta desgaitasuna

***Deustuko Unibertsitatearekin batera proiektu bat egiten ari gara, izan ere, jakin nahi dugu zerk laguntzen dien familiei adimen desgaitasunarekin zerikusia duten egoera zailetara egokitzen***

Psikologian, erresilientzia esaten zaio egoera zailetara egokitzeko edo egoera horiek positibo bihurtzeko gaitasunari. Adimen desgaitasuna duten pertsonei laguntzen dieten familien erresilientzia aztertzea ezinbestekoa da programak sortzeko alde biei ondo egoten eta garatzen laguntzeko ahal izateko. Erresilientzia garatuz gero, familiek tresna gehiago izaten dute eta hobeto sentitzen dira eguneroko bizimoduan.

Horregatik, Gorabidek eta Deustuko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultateak proiektu bati ekin genion elkarrekin iaz. Gure helburua da jakitea zerk laguntzen dien familiei adimen desgaitasunarekin zerikusia duten egoera zailetara egokitzen, haiei laguntzeko esku hartzeak garatu ahal izateko. Helburu horrekin elkarrizketatu ziren elkarte batzuetako 35 familia Deustuko Unibertsitateko psikologo batekin.

**Galdetegi anonimoa**

Familietako kide desberdinen egoera ulertzeko, galdetegi batean parte hartzeko eskatzen dizuegu, erabat anonimoa eta konfidentziala izango da. Galdetegia web helbide honetan duzue eskuragarri: bit.ly/2c9Ntqx. Gainera, gure Bilboko egoitzan edo BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuan ere eska dezakezue, bidaltzeko gutuna prest izango duzue zigiluarekin. Zuen laguntzarekin bakarrik lor ditzakegu adimen desgaitasuna duten pertsonen familiakoen bizi kalitatea hobetzeko datu garrantzitsuak.



# Taller para hermanos y hermanas menores

Nuestra Área de Intervención Familiar organiza un nuevo taller para hermanos y hermanas de 6 a 12 años, en el que puedan compartir inquietudes y experiencias, y expresar emociones en torno a la vivencia de tener un hermano o hermana con discapacidad intelectual. También habrá tiempo para compartir una merienda y algunos juegos. Será el viernes 11 de noviembre, de 18:00 a 20:00.

Además, el 16 de diciembre, habrá un taller de decoración navideña para hermanos y hermanas con y sin discapacidad intelectual, también de 18:00 a 20:00. Ambas actividades tendrán lugar en la sede de Gorabide en Bilbao (c/ Licenciado Poza nº 14, 2º).

**Información e inscripciones:**
Diana Cabezas. Tel. 94 443 12 10
dianacabezas@gorabide.com

# Neba-arreba txikientzako tailerra

Gure Familian Esku Hartzeko Zerbitzuak beste tailer bat antolatu du 6 urtetik 12ra bitarteko neba-arrebentzat, helburua da kezka eta esperientziak partekatzea, eta adimen desgaitasuna duen neba edo arreba izateak sortzen dituen emozioak adieraztea. Gainera, merienda eta jokoak partekatzeko tartea ere egongo da. Tailer hau azaroaren 11n izango da, 18:00etik 20:00etara, Bilboko Gorabide bulegoetan (Poza Lizentziatua kalea, 14. zk., 2.a). Horretaz gain, abenduaren 16an, Gabonetako apaingarrien tailerra egingo da neba-arrebentzat, desgaitasuna dutenentzat eta ez dutenentzat, 18:00etatik 20:00etara. Jarduera hau ere Bilboko Gorabide bulegoetan izango da.

**Informazioa eta izena ematea:**
Diana Cabezas. Tel. 94 443 12 10
dianacabezas@gorabide.com

## LABURRAK BREVES

### Encuentro de Autogestores Fevas

El 22 de octubre, organizamos el XII Encuentro de Autogestores Fevas, en la Residencia de Estancias Temporales del Centro Ola BBK de Sondika. Bajo el título 'Hablamos de maltrato', las personas participantes reflexionarán sobre las situaciones de maltrato que pueden vivir las personas con discapacidad intelectual, y presentarán una guía.

### Autogestoreen Topaketa

Urriak 22an, Fevaseko XII. Autogestoreen Topaketa antolatu dugu, Ola BBK Zentroan dagoen Aldi Baterako Egonaldietarako Egoitzan. 'Tratu txarrari buruz hitz egiten dugu' izenburupean, partaideek adimen desgaitasuna duten pertsonak bizi ditzaketen tratu txar-egoeri buruz hitz egingo dute, eta gida bat aurkeztuko dute.

### Charla de Hirukide

Hirukide ofrece una charla sobre los peligros de internet y las redes sociales virtuales, con Jorge Bermúdez, fiscal de Criminalidad Informática de Gipuzkoa. Será el 18 de octubre, de 19:30 a 21:00, en la Biblioteca CRAI de la Universidad de Deusto. Más información: hirukide@hirukide.com.

### Hirukideko hitzaldia

Hirukidek interneteko eta sare sozial birtualetako arriskuei buruzko hitzaldia eskainiko du. Jorge Bermúdez Gipuzkoako Kriminaltasun Informatikoko fiskala izango da hizlaria. Urriaren 18an izango da, Deustuko Unibertsitateko CRAI Liburutegian, 19:30etik 21:00etara. Informazio gehiago: hirukide@hirukide.com.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA




**Veinte personas usuarias de Gorabide realizaron voluntariado de apoyo en el desfile de Star Wars que se celebró en Bilbao, el mayor evento de este tipo organizado hasta ahora en Europa.**

**Gorabideko 20 pertsona erabiltzailek boluntariotza lana egin zuten Bilbon egindako Star Wars-eko desfilean, Europan orain arte egindako handiena, horrelako ekitaldien artean.**



# agenda octubre urria

## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 13 jueves / osteguna — Hora / Ordua: 18:00

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 17 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 18:00

**FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 17 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 18:00

**FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 20 jueves / osteguna — Hora / Ordua: 18:00

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**BUSTURIALDEA** — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
Día / Eguna: 11 martes / asteartea — Hora / Ordua: 18:30

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
Día / Eguna: 4 martes / asteartea — Hora / Ordua: 19:30

**DURANGALDEA** — Comisión / Komisio
*Pinondo Etxea. Pza. Pinondo - Durango*
Día / Eguna: 18 martes / asteartea — Hora / Ordua: 18:00

**ERMUA** — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
Día / Eguna: 3 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 19:30

**MUNGIALDEA** — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
Día / Eguna: 4 martes / asteartea — Hora / Ordua: 20:00

**SANTURTZI** — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
Día / Eguna: 26 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 19:00

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 4 martes / asteartea — Hora / Ordua: 18:00

**LOS NUEVOS**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 3 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 18:00

**LOS ELEGANTES**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 5 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 18:00

**LOS VETERANOS**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 5 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 18:00

**GURE AHOTSA**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 19 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 18:00

**JARRAI IEZAGUZU!**

**¡SÍGUENOS!**


D.L./L.G. BI-394-2014